



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Lurpeko edukiontzien mantentze lan prebentibo eta garbiketa zerbitzua emateko lizitazio iragarkia

1.- Erakunde esleitzaila.

- a) Organismoa: Debagoieneko Mankomunitatea.
- b) Espedientea bideratzen duen bulegoa: Idazkaritza Nagusia.
- c) Dokumentazioa eta informazioa lortzea.
 - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitateko Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta-kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
 - 4.- Telefonoa: 943793399.
 - 5.- Telefaxa: 943770854.
 - 6.- Korreo elektronikoa: kontratazioa@debagoiena.net
 - 7.- Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.debagoiena.com
 - 8.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita.
 - 9.- Espediente zenbakia: 2014/03 zerbitzuak

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: zerbitzu kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: lurpeko edukiontziak prest jartzea eta mantentze lan prebentibo eta garbiketa zerbitzua ematea.
- c) Lotekako zatiketa eta zenbakia:
 - **1 lotea:** Arrasateko lurpeko edukiontziak prest jartzea.
 - **2 lotea:** lurpeko edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitzea, eta mantentze lan prebentiboa egiteko aldizkako lanak.
- d) Lana egiteko lekua: Mankomunitateko udalerrriak.
- e) Kontratuaren iraupena: urtebete.
- f) Luzapenak: bat, beste urtebetez.

3.- Tramitazioa eta prozedura.

- a) Tramitazioa: ohikoa.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Enkante elektronikoa: ez.
 - d) Esleipen irizpideak:
 - Proposamen ekonomikoa: % 50.
 - Proposamen Teknikoa: % 50.
- 1 lotea**
- Unitateen eta egin beharreko lanen gaur egungo egoeraren balorazioa, baita balorazio horren zehaztapen maila ere: 10 puntu.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Lanak egiteko proposatutako metodologia, eta detektatutako gabeziak konpontzeko proposamen zehatzak, baita horren zehaztapen maila ere: 15 puntu.
- Ordeztu beharreko piezak edo elementuak, edo berriak edo erabiliak izango diren: 15 puntu.
- Lanak egiteko proposatzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak: 10 puntu.

2 lotea

- Garbiketa lanak (10 puntu): garbitzeko metodologia, proposatzen diren bitartekoak eta produktuak eta garbiketa lanetan eskaintzen diren eragiketa guztien zehaztapen maila baloratuko dira.
- Mantentze lan prebentiboak (40 puntu): alderdi hauek baloratuko dira:
 - Mantentze lan prebentiboa egiteko proposatutako metodologia eta bitartekoak, baita lan horietan eskaintzen diren eragiketa guztien zehaztapen maila ere. Proposatutako mantentze lanen txostenaren eredu, aplikatu beharreko "check-list"-arekin, baita eredu horren zehaztapen eta definizio maila ere: 10 puntu.
 - Esleipenaren prezioaren barruan aurretiaz ezarritako maiztasunarekin aldatzea proposatzen diren elementuak, duten egoera gorabehera, eta proposatutako maiztasuna: 5 puntu.
 - Mantentze lan prebentiboaren barruan ordeztu, konpondu edo doitzeko lanen irismena, baita irismen hori definitzeko argitasun maila ere: 25 puntu.

4.- Kontratuaren balioaren zenbatespena:

1 lotea: 49.000 €, BEZ kanpo.

2 lotea: 90.000 €, BEZ kanpo.

5.- Enkantearen oinarrizko aurrekontua:

1 lotea: Zenbateko garbia: 49.000 €. Guztira: 59.290 €.

2 lotea:

- Lurpeko edukiontziak barrutik eta kanpotik garbitzeko lanak: Zenbateko garbia: 95 € garbitutako unitate bakoitzeko. Guztira: 114,95 € garbitutako unitate bakoitzeko
- Mantentze lan prebentiboa egiteko aldizkako lanak: Zenbateko garbia: 155 € aztertutako unitate bakoitzeko. Guztira: 187,55 € aztertutako unitate bakoitzeko

6.- Bermeak.

- Behin behinekoa: ez da eskatzen.
- Behin betikoa:
 - **1 lotea:** esleipen prezioaren %5a.
 - **2 lotea:** balio estimatuaren %5a.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

7.- Kontratistaren berariazko betebeharrak.

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala: Arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 300.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguruua. Azken hiru urteetan edukiontziak garbitzeko eta mantentzeko lanak egin izana egiaztatzea.

8.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskariak aurkeztea.

- a) Aurkezteko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata bada hurrengo lanegunera arte luzatuko da.
- b) Aurkezteko era: Administrazio Klausula Partikularren Agirian zehaztutakoa.
- c) Aurkezteko lekua:
 - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitatea, Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Enkantegileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

9.- Eskaintzak irekitzea.

- a) Deskribapena: 2. sobrea irekitzea, "Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak".
- b) Erakundea: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa Etorbidea, 17.
- c) Herria: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Data eta ordua: proposizioak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren laneguna, hau larunbata denean izan ezik, kasu honetan hurrengo lehen laneguna izango baita. Goizeko 10:00etan. 2. gutun-azala irekitzea.

10.- Iragarkien gastuak: esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Arrasate, 2014ko ekainak 19a.- Lehendakaria.